



Lana / La obra

Bizitzak hala nahi izan duelako joan da Gaia —hogeita bost urteko neska gaztea— Colchester hirira, lanera. Euskal Herriaren eta Erresuma Batuaren artean kokatzen da istorioa, eta Gaiak Heleni bidalitako eskutitzek gauzatzen dute kontakizuna, distantzia hori laburtuz. Lagun zaharrak, lagun berriak, amodio zaharrak, amodio berriak... Bizitza berri bati ekin nahi dio Gaiak, baina ez du atzean utzi duen altxorra ahaztu nahi.

Astean bat, bi, hiru... eskutitzen bidez kontaktzen dio lagunari bere bizitza berria; lagun berriak, Euskal Herriarekin gordetzen duen harremana, Anderrekin duen harremana... Urte betean zehar idatzitako eskutitz hauek Gaiaren bizitza kontaktzen dute sinpleki; harremanetan oinarritutako bizitza, sentipenak, bizipenak...

Gazteei eskainitako liburu bat da; eskutitzen bidez idatzita egonik, irakurterraza eta oso dinamikoa egiten da. Amaiera arte ez da trama guztia argitzen, eta eserialdi bakar batean irakurri nahiko ditu irakurleak eleberriko eskutitzak.

Maitasunak eta heriotzak zeharkatutako liburua da esku artean duzuna, irakurle.

Fitxa tekniko / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Zein usain dute oroitzapenek?**

Egilea / Autor: **Maddi Etxeberria Otaegi**

Saila / Colección: Bioleta, 12

ISBN / EAN: 978-84-9109-322-0

Salneurria / Precio: 12,50 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / Nº páginas: 112

Formatua / Formato: 14 x 20,5 cm



Egilea / El autor

Maddi Etxeberria Otaegi Andoainen jaio zen, 1998an. Txiki-txikitatik izan du lotura oso estua literaturarekin. Gurasoek gauero-gauero irakurtzen zizkioten ipuinak, geroago, bere kasa irakurritako liburuxkekin ordezkatu zituen; urteak aurrera joan ahala, liburuak loditzen joan ziren. Idaztea ere, txiki-txikitatik egin duen zerbait da; hasieran ipuinak idazten zituen, baina koxkortu ahala, bere barne-korapiloak askatzeko baliabide bihurtu zitzaion literatura.

“Urruzunotarrak gehituz” edota “Martin Ugalde” bezalako sariketak irabazi ditu Maddik, baina askozaz orri gehiago dira jendeak irakurritakoak baino, bere etxeko apaletan pilatu dituenak. Gaur egun, Giza Nutrizioa eta Dietetika ikasten ari da Gasteizen, eta *Zein usain dute oroitzapenek?* da bere lehen eleberria.